

## Kargudun politikoak eta euskara

**AMAITZEAR** dago EAEn funtzionarioen euskalduntzeko plangintzaren lehen fasea. Horren balantzea egiteko ordua da: lorturiko emaitzena eta egindako hutsuneena. Eta ondorioz, bigarren faseko plangintza egin beharko da.

Orain jakingo ditugu, ustez, EAeko funtzionarioen euskalduntzeko lehen plan orokorrak eman dituen fruituak eta azken emaitzak. Horiek aurrean, azterketa eta eztabaida sozial zabal-sakona eratu beharko da egindako bideari buruz: lorpenak eta eskasiak, disematuriko planaren alde onak eta txarrak, eramandako politikaren zuzenak eta okerrak, aurkituriko laguntzak eta trabak.

### Plangintza: helburuak eta helpeideak

Ez naiz hemen emaitzei buruz jardungo. Dena dela, horien analisia eta kritika ezingo dira mugatu euskara ikasi duten (edo ez duten) funtzionarioen kopuruari begiratzera bakarrik; horrekin batera administrazioaren barne- eta kanpo-funtzionamendua euskalduntzeko planak eragin duen (edo ez duen) dinamika instituzional eta soziala neurtu beharko da: azken batez, euskararen erabilerraren normalizazio prozesua behar da neurtu eta aztertu (funtzionarioen eta administrazioaren aldetik, eta herritarren aldetik).

Dena dela, orain arteko planaren akatsek eta politikaren okerrak eta emaitzen gorabeherek ez dute, ondorioz, ez helburuen murriztea eta ez helpeideen apaltzea eragin behar, aurrera begira. Plan berriak urrats berria eskatzen du, abiaburua eta azken helburua argi edukia. Abiaburua euskaldunon eskubidea da, admi-

nistrazio publikoarekin euskaraz jardutekoa; azken helburua administrazioa euskalduntzea da. Bigarren planak (urte gutxitakoak) ezingo du noski EAeko administrazio osoaren euskalduntzea helburutzat ipini, baina bai argi eduki behar duela, horixe dela azken helburua; eta horretarako helpeideak jarri behar dituela.

Administrazioa euskalduntzea funtzionarioak euskalduntzea baino askoz gehiago da; euskararen erabilera normalzea da. Herritarren eta administrazioaren artean euskararen erabilera normalzea, batetik; eta euskara administrazioiko laneko hizkuntza bihurtzea, bestetik. Horri begira urrats berri konkretua, plangintza berriak egin beharrek, honako hau da: kargudun politikoak euskaraz jakitea.

### Funtzionarioak eta politikariak

Kargudun politikoek ari gara; eta, hain zuzen ere, kargudun politiko publikoek: hau da administrazio publikoko kargudun politikoek. Funtzionarioen euskalduntze-plangintzak benetako fruiturik emango badu, eta administrazioak euskaraz funtzionatuko badu barrura nahiz kanpora begira, behar-beharrezkoa da kargudun publiko politikoek euskaraz jakitea, horien menpe baitaude funtzionarioak eta horien eskuetan dago neurri handi batez administrazioaren barruko funtzionamendua.

Ez da hemen funtzionarioentzako jarraibide on edo eredu izatearen arazoa bakarrik: hori ere badago artean. Behin eta berriro entzuten dugu —eta ez arrazoirik gabe—: nolatan behartuko dituzte agintariek euskaraz jakitea funtzionarioak, beraiak ez baldin badakite eta ikasten saiatzen ez badira? Haien esku dago azken batez funtzionarioek beren lanerako ika-

sitako euskara beren barruko lanean erabili ahal izatea —euskaraz baliatu ahal izatea da gainera motibazio psikologikorik handiena hori ikasteko—. Baina arazoa sakonagoa da: Administrazio publikoaren euskalduntzea; eta hori ez da lortuko gure kargudun publiko politikoek euskaraz ez dakiten bitartean.

Funtsezko arrazoiak, beraz, besterik da: kargudun politikoak administrazioa dira —eta ez hauteskunder ez hautatuak bakarrik—: herritarren zerbitzuan daude, funtzionarioak beste behintzat. Zerbitzu publikoa betetzen dute, herritarrek horretarako aukerata, eta herritarrek horretarako ordainduta.

Urrats berria, beraz, Aurrenik borondate politikoak behar da horretarako noski: hautagaiak aurkezten dituzten alderdien eta hautesien borondate politikoak. Baina bere forma legala behar du urrats horrek, euskararen ofizialtasuna benetako izango baldin bada. Horretarako argumentazio juridikoak eta lege-formulazioak legelariak eta legegileek eman beharko dituzte.

Duela aste gutxi iragarri zuten EKBB kargudun publiko politiko gorenak euskara jakitearen auzia legezatu beharra; horren aldeko ekintza soziala antolatzeko asmoa agertu zuten gainera. Gorenako kargudunen arazoa, ordea, ez da zer bait apartekoa; hierarki-mailak, epeak eta egoera soziolinguistikoak kontutan edukirik, kargudun publiko politiko guzientzako ireki beharko da formula juridikoaren bat.

### PAULO AGIRREBALTZATEGI

EKB-KO LEHENDAKARIA

## Euskara, hiru eremuetan naziogintzaren ardatz

**DATORREN** uztailaren Nazionalismoaren mendeurrenoko txosten baten Euskal Herriaren hiru epe estrategikoez mintzatzen naiz, baina gaueko hizkuntzari lotuko nartzioa, alegia, Ipar, Eki eta Mendebaldea naziogintza hizkuntzari begira. Euskara Gernikako Estatuaren 6. artikuluan dioen bezala, euskara hizkuntza propioa da eta gauza berbera errepikatuko du Euskararen Erabilerrazko Legeak, hots, Euskal Legebiltzarreko 10/1982 Legeak. Aitorpen bi horiek Euskal Herriaren mendebaldetik begira, ahantz ezinak direla iruditzen zaigu, hizkuntzaren prolematika aipatzerakoan. Bereziki, kontutan baldin badugu, Estatuaren 6.5. artikulua, zeinek esaten baitu: «Euskara beste euskal lurralde eta komunitate batzuetako ondarea ere izanik, erakunde akademiko eta kulturazkoek beroekin izan ditzaizketen harreman eta loturez kanpo, Euskal Herriko Komunitate Autonomoak eskatu ahaliko dio espainol Gobernuari lurralde eta komunitate horiek kokaturik daudeneko Estatuaren itunak eta komenioak egin ditzaizka». Artikulu horren lehen egilea izan nintzenetik, esan dezaket, begi bistan Iparraldea nuela. Ez berdin, baina antzera esango nuke, Nafarroarekiko harremanez 22. artikulua dioenaz. Euskararen Legea berriz joanda, lehen Xedapen Geogigaria ere interesgarria da.

Egia aitortzeko ez dut uste artikulu horiek garatu direnik ez eta horren kontzientzia han-

dirik egon denik. Harrigarria bada ere, euskaltzaleok ez ditugu baliatu artikulu hauek. Egia da Aktianiarekiko harremanetan zer bait egin dela, baina beti ere 'transfontalier' zentzurekin gehiago. Euskara sinbolizat baino errealtate aldagarriz hartuta, administrazioek honen garapena bideratuko beharko luketela uste dut. Gasteizen, Iruñean, Paue-Baionan, Bordelen, Madrilan, Parisen edo Strasburgen. Beraz, herrialde honen izena Euskal Herria, euskararen herriatik baldin badator, eta nahiz eta egoera desberdinetan egon, hiru heren eremuetan, mendebaldeko status hobereana dugunetik, Ekialdera eta Iparraldera gehiago begiratu beharko genuke.

Hizkuntzaren barnerakoak finkatua daude hizkuntzaren Akademia bat, bakarra, baitugu. Euskaltzaindia, hiru eremuetara hedatua. Kideak ere eskualde guzietakoak dituelarik. Egoitza sorreratik Bilbon izan arren, Iruñean eta Baionan ordezkariak ditu.

Euskal Herriaren nazio identifikazioa, zentzu politikoegian egin dugulakotan nago, alegia, politika ideologia bati eta batzuei, eta ez proiektu kultural amankomun bati. Ez noski gure abertzaletasunaren fariseismoa edo falsuetzia agertzeko. Iparraldeak, oraindik askorentzat, abertzale batzuentzat, urtero, Bazkoetako eginaz, Herri Urraisera joateko balio du eta kumplitzeko. Gauza antzerako zer bait Nafarroa Oinezan. Horren aurrean zer egin? Zintotasun handiagora gure euskaltzaletasunean,

autokritika sakon bat gure nazio-presupuestuetan, Euskal Herriaren geolinguistika ezagueraren hoberean bat eta Euskal Autonomi Erkidetara, Euskal Herriaren, beste herrien erferentzia erudugarria bat izatea bultzatu. Berformulazio filosofiko orokor bat egin beharko genuke zentzu honetan. Beste heren bietako hiritarrek ere, bereziki euskaldunek, badute beraien eremuetan zer egin paraxutismoak alde batera utzita. Azken baten euskal nazionalitatearen lehen nortasuna eta funtsa kultur emaitza bezala kontsideratzen ez dugun bitartean, euskara lehenik noski, jai dugulakotan nago.

Hizkuntzaren prolematika hortik aztertu behar da, baina normalizazioa eta zeregin akademikoek landa, euskararen ofizialtasuna, beraien egoera juridikoa garatu gabe, filosofian hutsan gelditzea dela uste dut. Legeria garatu hiruren arteko harremanak sendotuz, administrazioen partaidetza, eginkizuna bultzatu. Euskal Herriak bereziki. Euskal Autonomi Erkidetara, mendebaldeko eremuak, alegia, orain bezalako aukerarik bere historian ez baitu izan. Ez da zilegi, guzti hori gehiago nahi badugu ere, horrekin ez baliatzea.

### JOSE LUIS LIZUNDIA ASKONDO

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO BATZAR IRAUNKORREKO KIDE INDEPENDENTEA

## BERRIAKZIRI



**ALFREDO JAIME**  
Iruñeko jarduneko alkatea  
DIARIO DE NAVARRA

«Komunista bat ere gauza izan daiteke suziria botatzeko»



**RENE MONORY**  
Frantziako Senatuko lehendakaria  
EL PAIS

«Herri askok proba nuklearrak egiten dituzte ezer esan gabe»



**MANUEL PATARROYO**  
Kolonbiako zientzialaria  
DIARIO 16

«Birusak trizikloak dira, bakteriak kamioiak, paraisitoak jumboak, mugikortasun handikoak, eta ez da gauza bera triziklo bat edo jumbo bat gelditzea»



**CHARLIE MUSSELWHITE**  
Musikaria  
EL CORREO

«Une ona da eta orain ondo bizi zaitzke bluesaren kontura izen ona baduzu»

## ZAKILIXUT

© Olorisagak

